



Zurriolako Ataria

55. alea

2019-03-22

Haur eta helduen arteko harremana aztergai

Azken asteotan Maria Cañas EHUko ikerlaria burutzen ari den azterketan parte hartzen ari gara Zurriolan. Proiektu honen helburua haur eta gurasoen arteko harremanaren ebaluazioa egiten duten profesionalen ebaluazio-gailu egokienak eskaintzea da. 4-8 urteko haurrak dituzten 11 familiek hartu dute parte ([info+](#)).



Aurten ere Udaberriko loreak bertan ditugu

Duela bi urte hasitako bideari jarraipena eman nahian, aurten ere udaberriarekin batera hainbat hitzaldi eta tailer antolatuko ditugu datozen hilabeteotan. Egitarau osoa oraindik zehazteke, aurreneko proposamena datorren albistean garatzen dugu: [Teknologia berriekiko dugun menpekotasuna](#).




Teknologia berriak eta menpekotasuna: guraso-eskolak

Teknologia Berrien erabilera desegokiak sortzen dituen arriskuei buruzko guraso-eskolak antolatu ditugu datozen bi asteotan. Sarrera librea da baina beharrezkoa izen-emate [orria](#) betetzea. **Martxoaren 26ean** Hurren izango da aurrena, **DBH** eta **Batxilergo**ko gurasoentzat. Apirilaren 2an, Hurren, LHko gurasoentzat eta Apirilaren 3an (lekua izen-ematearen arabera), HHko gurasoentzat. Saio guztiak 17:30ean izango dira. Gai honek duen garrantzia kontutan izanda, parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. [Zirkularra](#).



Errigora azken eguna

Gaur, martxoak 22, Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak eta arroza eskatzeko epea amaitzen da. Bertako produktuak ekoizlearen jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta eskuratu nahi izanez gero, ez ezazu aukera pasatzen utzi.



Eskola Kirola: 2018-19 ikasturteko zenbait irudi dituzue [jarraian](#).

OHARRAK / AGENDA:

- **LH1-6:** 2. Ebaluazioko txostena. Bidalketa gaur.
- **LH2-6:** Bide Hezkuntzako saioak. Goizez. Martxoak 25-29 bitartean.
- **LH4:** Tinko. Zinema euskaraz. Goizez. Martxoak 26.
- **LH5:** Arte erakusketa. Martxoak 29. 16:00. Hurrako frontoian.
- **LH6:** Inter Red-en eskutik saioa. Martxoak 27.
- **LH6:** Azoka solidarioa. Martxoak 29. 15:45. Hurrako atarian.
- **DBH1:** Guztiok behar dugu norbait. Formakuntza. Martxoak 27.
- **DBH1:** Bide Hezkuntzako saioak. Martxoak 28. Bizikleta eta kaskoa ekarri.
- **DBH2:** Bide Hezkuntzako saioak. Martxoak 29. Bizikleta eta kaskoa ekarri.
- **BATX1:** Bolumena arloko ikasleak. Donostiako eskulturak bisitatzeraz. Martxoak 29.
- **Ikastolaren festa:** Data aldaketa: **Maiatzak 4**.
- **Eskola Kirola:** 17. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Martxoak 22-24](#).

